

#### **40. artikulua.– Tabakoa kontsumitzea.**

1.– Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gunee itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan. Nolanahi ere, titulartasun pribatua duten erabilera publikoko gunee itxi eta erdi-itxietan espresuki baimendu ahal izango da erretzea, bazkide gehienek erabakiaren bidez, entitate titularraren jardueraren arautzen duten estatutu-arauetan jasota. Entitate horrek irabazi-asmorik gabekoa izan beharko du, eta berorren helburu sozial edo jardueraren barruan ez da egongo edozein ondasun edo produktu kontsumigarri merkaturatzea edo salerostea.

Lege honen ondorioetarako, gunee erdi-itxitzat jotzen dira lokal itxi baten kanpoaldean kokatutako eremu guztiak, baldin eta haien teilatuek edo hormek azaleraren % 50 baino gehiago estaltzen badute eta eremuak etengabe aireztatuak ez badaude, kea era naturalean ezabatzen dela bermatzen duen kanpoko airearen bidez.

2.– Honen ondoren aipatzen diren lekuetan, debekatuta egongo da erretzea:

a) Lantoki publikoetan eta pribatuetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

b) Administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakundeen zentroetan eta bulegoetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

c) Osasun-etxe, -zerbitzu eta -establezimenduetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere.

d) Ikastetxeetan eta prestakuntza-etxeetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere. Unibertsitate-zentroetan eta bereziki helduen prestakuntzara bideratutakoetan, zentroaren zuzendaritzari baimena ematen zaio erretzeko eremuak jartzeko, gunee itxi eta erdi-itxietatik kanpo.

e) Kirol-instalazioetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere. Aire zabaleko gunee horietan ostalaritzako espazioen ondoko gelak jarri ahal izango dira, behar bezala mugatu eta seinalatuko direnak.

f) Ikuskizun publikoak egiteko erabiltzen diren lekuetan, baita aire zabalean daudenean ere, baldin eta adingabeentzako jarduerak badira.

g) Haur-parkeetan eta haurrentzako jolas-toki edo -eremuetan, berariaz adingabeen jolaserako eta olgetarako ekipamendua edo egokitzapenak dituztenean eta behar bezala mugarrituta daudenean; baita aire zabalean ere.

h) Jendea zuzenean artatzeko eremuetan.

i) Merkataritza-guneetan, azalera handiak eta galeriak barne, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

j) Hoteletan eta antzeko establezimenduetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik. Hala ere, gelen % 30eraino gorde ahal izango da erretzaileentzat. Erretzaileentzako gelek finakoak izan beharko dute eta ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte:

j.1.- Gainerako geletatik bereizita dauden tokietan egotea, eta aireztapena independentea edo kea ezabatzeko bestelako gailurik izatea.

j.2.- Kartel iraunkorren bidez adierazita egotea sarrerako atearen kanpoaldean eta gelaren barruan.

j.3.- Bezeroa aurretiaz jakinaren gainean egotea emango zaion gela motaren inguruan.

j.4.- Langileek gela barrura sartzerik ez izatea bezeroren bat han dagoen bitartean, larrialdi-kasuetan izan ezik.

k) Tabernetan, jatetxeetan eta sukaldaritzako gainerako establezimendu itxi edo erdi-itxietan.

l) Aisia- edo olgeta-etxeetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

m) Gizarte-laguntzako zentro, ostatu eta bestelako establezimenduetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

n) Kultura-etxeetan, irakurgetan, erakusketa-aretoetan, hitzaldi-aretoetan, liburutegietan eta museoetan.

o) Antzokietan, zinema-aretoetan eta gune itxi edo erdi-itxietan egiten diren beste ikuskizun publikoetan.

p) Dantzalekuetan eta jokorako edo, oro har, erabilera publikoko establezimenduetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

q) Jakiak edo edariak egiteko, eraldatzeko, prestatzeko, dastatzeko edo saltzeko tokietan edo establezimenduetan.

r) Igogailuetan eta jasogailuetan.

s) Telefono-kabinetan, leku itxietako kutxazain automatikoetan eta erabilera publikoko beste leku txiki itxietan. Erabilera publikoko leku txiki itxitzat jotzen da bost metro karratutik gorako hedadurarik ez duena.

t) Autobus-geltokietan, erabat aire zabalean dauden guneeetan izan ezik, hiri-barruko eta hirien arteko garraio kolektiborako ibilgailuetan edo garraiobideetan, enpresako garraio-ibilgailuetan, taxietan, anbulantzietan, funikularretan eta teleferikoetan.

u) Hiri azpiko garraioko gune guztietan (bagoi, nasa, korridore, eskailera, geltoki eta abar), erabat aire zabalean daudenetan izan ezik.

v) Geltokietan, portuetan eta trenbide- zein itsas garraiobideetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

w) Aireportuetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

x) Zerbitzuguneeetan eta antzekoetan.

y) Beste edozein lekutan, baldin eta erretzea debekatzen bada lege honek edo beste edozein arauk aginduta edo titularraren erabakiz.

3.- Erretzea legez debekatuta dagoen zentro edo guneen sarreretan kartelak jarri beharko dira tabakoa kontsumitzea debekatuta dagoela adierazteko, argi ikusteko eta irakurtzeko moduan.